

SUSTAPENAREN OINARRIAK

ENPRESENTZAKO ZIBERASEGURUA

LEHEN URTEKO PRIMA ITZULTZEA

1.- Indarraldiaren datak

Sustapena 2025eko urriaren 6an hasi eta abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2025eko urriaren 6tik abenduaren 31ra bitartean (biak barne) kontratatatu beharko dira polizak. Efektu-datak 2026ko urtarrilaren 30ean izango du muga.

2.- Sustapena eta baldintzak

ZIBER aseguruak kontratatzen duten enpresek lehen urteko kuotaren zenbatekoaren % 100eko diru-itzultzea jasoko dute, baldin eta aurreko puntuan adierazitako datetan kanpainaren baldintzak betetzen badituzte. Itzulketa 3 urtean egingo da, betiere baldintza hauek betetzen badira.

- Aseguru-konpainiak: Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER, HISCOX S Aren Espainiako sukurtsala eta TELEFÓNICA SEGUROSen Espainiako sukurtsala.
- Sustatutako produktua: ZIBER.
- Aseguruaren gutxieneko prima: 700 € (prima osoa).
- Itzultzea honela egingo da 3 urtean:
 - Lehen zatia, zenbatekoaren 1/3a, aseguruaren lehen ordainagiria ordaindu eta 30 egunera.
 - Bigarren zatia, beste 1/3 bat, aseguru lehenengoz berritzean, dagokion ordainagiria ordaindu eta 30 egunera, baldin eta prima 700 €-koa edo handiagoa bada.
 - Hirugarren zatia, gainerako 1/3a, aseguru bigarrenez berritzean, dagokion ordainagiria ordaindu eta 30 egunera, baldin eta prima 700 €-koa edo handiagoa bada.
 - Gehienez itzuliko den zenbatekoa: 400 € zati bakoitzeko; muga osoa: 1.200 €.

3.- Beste baldintza batzuk

- Sustapena konpainia bakoitzaren kontratazio-arauen barruan aplikatuko zaie jarduera eta arriskuei.
- Caja Laboral Bancasegurosek bitartekoturiko polizei aplikatuko zaie.
- Polizaren ordainketak LABORAL Kutxan egon behar du helbideratuta.
- Polizak urtebetekoa izan beharko du, eta berriztagarria, eta urtean behin ordaintzekoa.
- Polizak, dirua itzultzeko eskubidea ematekotan, kontratatuta, ordainduta eta egunean egon beharko du. Sustapenaz baliatzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Itzulketaren gehieneko muga IFK bakoitzeko: 1.200 €.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili.
- Gehieneko eragiketa-kopurua: 100.

4.- Sustatzailea

Aseguru honen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da. B75060988 zenbakiko IFK du eta banka-aseguruetako operadore lotetsia da. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Aseguru Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzailerak: Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER, HISCOX S Aren Espainiako sukurtsala eta TELEFÓNICA SEGUROSen Espainiako sukurtsala. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kontsultatu aseguratzailerak hemen: www.aseguruak.laboralkutxa.eus.

5.- Aplikazio-eremua

Caja Laboral Popular banka-aseguruetako operadore lotetsiaren banaketa-sarea erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina —erakundea Bitartekarien Erregistro Administrazio Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.